

Marmari Leitzako aldizkaria

29. zenbakia / 2017ko abendua


- Turismoa eta euskara
- II. Leitzulia
- Bertsolaritza
- eta gehiago...



Leitza mende bete irudi

zenbaki honetan:





mARMARI aldizkariaren 29. alea duzue eskuartean. Aurtengoak atzera begira jarriko gaitu lehenbiziko orrietatik. Dakizuen bezala, 2017a mendeurrenaren urtea izan da, Leitzako udaletxeak 100 urte bete ditu-eta. 1917an inauguratu zuten gaur egun ezagutzen dugun udaletxea, eraikinaren bi aldeetan dituen eranskinekin. Mendeurrenaren aitzakian liburu bat argitaratu du Leitzako udalak, argazki zaharren bilduma osatuz. Horrez gain, erakusketa bat izan da urte osoan udaletxean, herriaren historia laburtzen duen erakusketa, eta herriar dezente arrimatu da garai bateko irudiak ikustera. Julian Zabaletak idatzi ditu mendeurrenari buruzko kontuak Marmarirako.

“Bertatik bertara” kontsumo mahaia ere ezagutuko dugu. Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko proiektua da eta Udalak eta LeitzeEKO kontsumo taldeak sortu dute. Parte-hartze prozesu bat garatu dute eta eman dituen emaitzak eta ondorioak azalduko dizkigute lantaldeko kideek.

Mugarratze jardunaldiak egin dira Leitzan, azaroaren 21 eta 22an. Zuhaitz zaharren inguruko hainbat aditu etorri dira Europatik, mugarratzearen garrantziaz esperientziak partekatzera eta ikastera, eta egiten den lan horri buruzko artikulua bat ere izanen duzue.

Beti bezala, Leitzako irudi eder askoez gozatzeko aukera izanen dugu, aurtan, Javi Aranbururen eskutik jaso ditugun

argazki galeria duzue aldizkariaren erdikaldean.

Leitzuliak II. Edizioa izan du aurtan eta Mendibil BTT taldeak kontatu digu nola joan zen mendi-bizikleta zeharkaldi arrakastatsua. Leitzako inguruko mendietan ateratako argazkiez lagunduta dator erreportajea.

Bertsolaritzari ere begiratu botako diogu, Txapelketa Nagusiaren urtea izanik bada eta zer kontatua. Bertso Eskolako kideek egin diote bertsolaritzari errepasoa.

Badira beste hainbat kontu: Institutuko ikasleek landu duten mugikortasunaren gaia, Kultur Taldeari buruzko artikulua, Jose Luis liburuzainaren erretiroa, eta euskara-turismoa. Baduzue zer irakurri!



Mendeurrenari buruzko erakusketa Udaletxean.

Mendeurrenean, Leitzako historiaren erakusleihoa irekiz

Leitzako udaletxea berritu zutela mende bat bete zen 2017ko abuztuaren 11n. Hori baliatuta, herriko memoria bildu eta lantzen hasi zen udala, Julian Zabale-taren ardurapean. Egindako lana azaldu digu Julianek idatzi honen bidez.

Hainbat aukera aztertu ondoren, herriarena den ondarea herritarrei bueltatzea erabaki genuen. Batean eta beste, lan egiteko materialaren bila ari nintzela, antzinako grabazio batzuk aurkitu genituen, eta hortik tiraka handik eta hemendik argazkiak biltzen hasi ginen. Artxiboetan gordeta edo gutxi batzuen eskuetan zeuden argazkiak eska-



Txantreatako etxeak, 60ko harmakada hasieran.



Leitza
argazki zaharretan



Liburuaren azala.

neatu genituen. Aurkitu genuen argazki zaharrenetik hasi eta 80ko hamarkada arte bilduma mardula sortu dugu.


Leitza zaharraren iruditegi zabala dugu eskuen artean. Grabaketa horien artean, herri kirolak, dantzak eta Sarrioko bi dokumental daude. Argazki pilo bat, herriko etxeetan eta baserrietan aurkitu ditugu. Gure guraso eta aiton-amonon munduari so egiteko leiho handi bat zabaldu da.

Orain ohikoak diren argazkiak, XX. mendearen hasieran atzerritik etorritako bidaiariak ateratzen zituzten eta argazkiak, gehienetan beraiekin batera eramaten zituzten hemendik. Hortaz, hamaika ate eta urruneko artxiboetan eskua sartu behar izan dugu gure memoria berreskuratu nahian. Eta ildo bereetik, azpimarratu behar dut herritarrek izan duten eskuzabaltasuna, euren etxeetako ateak ireki baitizkigute bere etxeetan zeuden argazkiak eta informazioa eskaintzeko.

Hortaz, *Leitza argazki zaharretan* liburuaren bitartez leitzarrek ezagutzea merezi zuten euren historiaren zati bat bueltatu nahi izan zaie; etxeetan gure ahaideen memoria izoztua begien aurrean izateko aukera; gure eskuekin geure



Udaletxe zaharra, 1912an.



Udaletxe berriaren planoak, 1915.



Emakumeen antzerki taldea, 1930eko hamarkada.



Ingurutxoa, 1910eko hamarkada.



Ezpatadantzariak, 1960ko hamarkada.



1960. hamarkadako ekonomatoa.

herriaren historiaren zati txikia laztantzeko aukera izatea da eskaini ahal genezakeen minimoa lan honen bitartez. Garai zaharrak etxeko sukaldeetara helarazi nahi izan dugu, irudiez disfrutatzeko eta historian zehar igeri egiteko. Ez baita argazki bilduma soila, baizik eta garaian garaiko bitxikerien eta leitzarron nortasunaren erakusleho zabala.

Guztira 800 liburu inguru argitaru dira, eta dagoeneko 600dik gora saldu dira. Herritarren interesa erakusten du horrek, besteak beste.

3000 argazkitik gora bildu genituen horretan, 700 argazkiek liburuan azaltzeko aukera izan dute. Herriak izan behar zuen altxorren zati bat eskuetan du; orain memoria biltze horretan, beste garaietako argazkiak jasotzen joateko lanak aurrera darrai. Beraz, ez nuke beta galdu nahi herritarrei animatzeko Lei-



Plazaolako tren geltokia, 1915-1930 ingurua.

tzan gure fototeka txikia sortzeko lanarekin jarraitzea. Etxeetan guretzat argazki normalena dena, Leitzako historiaren memoriarentzat zati garrantzitsua izan

daiteke. Eta argazkiz argazki Leitzako herriaren izpirituia irudikatu ahalko dugu geroan gure oinordeek nortasuna inoiz ahanzi ez dezaten.

Turismoa eta euskara eskutik lotuta

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Euskara Mankomunitateak, lau herri hauetako udalekin batera, euskarari eta turismoari buruzko eskuorria eta galdetegi bat argitaratu dituzte. Azkenaldian bisitan datozen turisten kopurua etengabe handituz doala ikusita, bisitariak nondik datozen jakin nahi izan dute. Horrekin batera, euskararen presentzia eta garrantzia ohartarazi nahi izan dituzte turistak, bisitatzera etorri diren eskualdea euskalduna dela erakutsiz.


Eskuorriak hiztegitxo bat dakar, euskarazko hainbat hitz beste bost hizkuntzetara emana: Gaztelera, katalanera, galiziera, frantsesa eta ingelesa. Hizkuntza hauetan jasoa dator, baita ere, euskararen hainbat azalpen eta azkenik, eskualde honetako gune turistikoek webguneak: mendi ibilaldiak, ibilaldi megalitikoak, herri kirolak,...

Eskuorri hauekin batera euskarari buruzko galdetegi batzuk prestatu dituzte, lau hizkuntzetan: euskaraz, gaztelez, katalaneraz eta ingelesez. Sei galdetegi osatutako galdetegi laburra da. Udan banatu ziren: Leitzako informazio gunean eta landetxeetan; Goizueta, Areso

eta Aranoko landetxeetan eta ostaturen batean. Oraingoz Leitzako informazio gunean eta landetxe pare batean bildutakoak jaso dituzte eta oso harrera ona izan dute, 250 galdetegi bete dira bost hilabetetan.

Ondorioak ateratzeko lagin bat besterik ez bada ere, oso baliagarria da jasotako informazioa. Kontuan hartu behar da galdetegi bete dutenetatik ateratako datuak direla. Horrek ez du esan nahi hemen aipatzen diren turistak bakarrik etorri direnik herria bisitatzera, bestelako turistarik ere izanen zen, baina, ez dute galdetegi bete.

Honenbestez, galdetegi hauek turisten jatorria definitzeko balio izan dute, baina



baita, bisitariek **euskararen inguruan dituzten jarrerak** jakiteko ere. Aipagarria da hizkuntzari buruz emandako iritziak oso positiboak direla, portzentai handi batean. Esaterako, “*Ostalaritza eta seinalizazioa euskara hutsean ikusi izana*” zer iruditu zaien galdetuta 250 erantzunetatik 201ek “*atsegin dut eta eskertu dut tokian tokikoari balioa ematea*” erantzun dute. Gainerako 30ek aldiz, “ez dut atsegin” erantzuna hautatu dute.

Jatorriari erreparatzen badiogu, ondoko taulan datoz bisitarien datuak, lurraldeka:

NONDIK ETORRITAKOAK	BETETAKO GALDETEGI KOPURUA
Euskal Herritik	68
Herrialde Katalanetatik	85
Kataluniatik	49
Valentziatik	36
Madrilatik	23
Estatuko beste komunitateetatik	43
Beste estatu batzuetatik	31
GUZTIRA	250



Bertako produktuen azoka.

Leitza kontsumituz, bertako produktua bultzatzeko proiektua

Urte bat lanean igaro ondoren Bertatik Bertara taldeak “Leitza kontsumituz” partaidetza prozesu herritarra garatu eta bertako elikadura eta produktuak bultzatzeko herriko ekin-tza plana osatu du.

Leitzako Udalak eta LeitzEKO kontsumo taldeak sortu dute proiektua, elikadura burujabetzan urratsak eman nahian. Ordurako, herriko hainbat ere-

mutan ematen ari zen eztabaida zen elikadura burujabetzarena. Baziren hainbat kezka: Bertan ekoizten diren produktuek egunerokotasunean presentzia nola izan zezaketen, baserritarrek beren ogibideari nola eutsi edo jarduera horien jarraipena nola bermatu zitekeen.

Gaur gaurkoz lortu diren bi emaitza nagusienak honakoak izan dira: “Bertako produktuen inguruko diagnostikoa”

eta “Leitza Kontsumituz, Bertako produktuen kontsumo, salmenta eta ekoizpena bultzatzeko plana” sortzea.

URTEBETEKO LANA, SU MOTELEAN SUKALDATUA

Urtebeteko lana izan da, iazko azaroan Leitzako Udalak eta LeitzEKO kontsumo taldeak deitutako bilera ireki batekin hasi eta aurtengo azaroan burutu



Bertako produktuen postua azokan.

den parte hartze prozesu herritarrarekin amaitu dena. Leitzako banabarra bezala su motelean eta goxo-goxo landu den proiektua da Leitza Kontsumituz.

2016ko azaroan, eta Leitza eta Aresoko produktuen II. Azokaren ondoren hausnarketa bera egin zuten Udalak eta kontsumo taldeak. Azoka aukera aparta da herrian ekoizten diren produktuak ezagutarazteko baina ez da nahikoa. Horregatik, bilera ireki bat deitu zuen herritar guztien artean bertako produktua nola bultzatu zitekeen pentsatzeko.

Bilera horretan hainbat helburu adostu ziren eta Bertatik Bertara lan-taldea sortu zen.

1. Elikadura burujabetzaren inguruko hausnarketa eta kontzientziazioa bultzatzea.
2. Elikadura burujabetza herritar guztien parte hartzearekin eraikitzea.
 - 2.1. Herriko beste hausnarketa batzuekin bateratzea (turismoa)
3. 1go sektoreak dituen aukera, arrisku, indargune eta ahulguneen azterketa egitea.
4. Bertako ekonomiari bultzada eman eta nekazaritza eredu jasangarria bultzatzea, ekonomikoki, sozialki eta ingurumen aldetik.
5. Baliabide desberdinak erabiliz egingarriak izango diren helburu zehatzak finkatzea.

Taldearen lehen lanetako bat beraz, Leitza eta Aresoko lehen sektorearen, zerbitzu sektorearen eta kontsumitzaileen inguruko diagnostiko bat egitea izan zen. Ordutik eta ia-ia 2017ko apirilera arte hainbat inkesta egiten aritu zen taldea Leitza eta Areson. Guztira 57 etxalde eta ekoizlerekin hitz egin dute (42 Leitza eta 15 Areson). Horrez gain, Leitzako 22 komertzio, taberna eta jatetxerekin. Azkenik, Leitzako Udalak inkestatzaile bat kontratatu zuen herritarren artean beren kontsumo ohitura eta bertako produktuaren kontsumoaren inguruko galdeketa egiteko. 314 herritarrengana iristea lortu zen horrela, Leitzako herritarren %10era.

INKESTA KOPURUA	
Etxalde eta ekoizelak	57
Zerbitzu sektorean	22
Herritarrak	314

Diagnostikoari dagokionez, esan daiteke inoiz ez dela horrelako argazki zehatz bat egin Leitza eta Aresoko lehen sektoreari buruz. Hutsuneak hutsune, lan handia egin da datu objetibo zein lehen sektorean jarduten edo jardun izan diren pertsonen sentipen eta iritziak jasotzen.

Ondorio nagusi bezala esan daiteke, **gainbeheran, zahartzen eta bizirau-tekko zailtasunak dituen lehen sektore bat** aurkitu duela Bertatik Bertara taldeak. Bere lana ez dela baloratzen

uste dute ekoizle edo baserritar gehientsuenek eta garai batean herriak eta baserriak izan zuten lotura berreraiki behar dela aldarrikatzen dute. Honekin batera, **lehenengo sektorean aritzeko gazteen motibazio falta** ageri da. Bere gurasoek aurkitu izan dituzten zailtasunek eraginda edo erreferente positibo faltagatik, gaur egungo gazteek ez dute nekazaritza edo abeltzaintza lan egiteko edo bizimodua ateratzeko aukera bezala planteatzen.

Bestalde, azpimarragarria da emakumea faktore garrantzitsua izan dela Leitza baserria egituratzeko garaian. Agrarian alta emandako 17 emakumee-tatik 15ek ez dute baserrikoa beste jarduerarik burutzen. Eta horri zaintza lanak edo lan erreproduktiboak baloratu gabe egotea gehitu behar zaio. Ez da meritu makala.

Lurraren gaiari dagokionez, erabiltzen diren lursail gehienak pribatuak badira ere, Leitza eta Aresoko azienda askok herri-lurretan bazkatzen dute eta hori, mendia garbi mantentzeko eta daukagun pasai eder honi eusteko nahitaezkoa da.

Produkzioari dagokionez, baratze-kultura aberatsa topatu dugu. Denetik ekoizti eta hazten da Leitza eta Aresoko baserri eta ortuetan. Modu tradizionalan orokorrean baina joera aldaketa bat ematen ari da horretan ere eta geroz eta gehiago dira ekoizpena modu agroekologikoan egiten hasi direnak.



Parte-hartze prozesuaren lehenengo bilera.

Bertako produktuen salmentari dago-kionez, gehientsuena autokontsumorako ekoizten dela aipatu behar da lehenengo. Batez ere, barazki, lekale edo produktu freskoak. Pisu ekonomiko gehiena haragi salmentak eramaten du (behorrak, zekorrak,...) eta horren ondoren ardi sektoreak (esnea eta gaztagintzak). Nabarmendu beharreko datu bat, Leitzako baserrietatik behi-esnea desagertu egin dela, sektore honetan Nafarroan eman den intentsifikazio eta industrializazio bortitzaren ondorioz. Duela 30 urte baserri guztietan ekoizten zen esnea autokontsumorako zein saltzeko. Diru iturri nagusienetakoa zela esan daiteke.

Amaitzeko, baserriaren etorkizuna diru iturri nagusi izan daitekeen jardueraren ekonomiko bezala bermatu gabe dago, bai behintzat gaur egun ezagutzen dugun bezala (15ek bakarrik ikusten dute jarraipena). Horrek jakintza askoren galera suposatzen du eta mendi zein paisaiaren zaintzan arazoak.

Hala ere, ez dira gutxi baserria etxeko diru iturri nagusi bezala ikusi ez arren osagarri izateko aukera ikusten dutenak.

Gazteak lehen sektorean jarraitu edo hasteko erraztasunak eman behar zaizkiela jaso da inkestetan. Hala nola, lurra eskuratzeko erraztasunak, salmenta legedia malgutzea eta eredu positiboak erakustea.

INTERES HANDIA DAGO, LEHEN SEKTORETIK KANPO ERE, BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOAN

Gaur egun 22 establezimendutan Leitzeta eta Aresoko produktua dago. Herriko ekonomia eta bizitza bultzatzeko interesa ekoizleekin partekatzen du zerbitzuen sektoreak. Sektore honek bertako produktuak beraien eskaintzetan txertatzea interesgarria da eta gehigarri gisa ikusten dute gainera, baina legeria eta prezioak oztopo ikusten dituzte.

Azkenik, ondorioetan herritarren kezkek ere jaso dira osasunarekin, bertako eta kalitatezko produktuaren kontsumoarekin lotutakoak gehienak. Baina kopuru handi batek ez du ezagutzen produktu hauek eskuratzeko aukerak zein diren edo non dauden.


EZTABAIDA, ELKARRIZKETA ETA SARETZA LEITZA KONTSUMITUZ PARTAIDETZA PROZESUAREN HELBURUA

Behin diagnosi fasea bukatuta Bertatik Bertara taldeak bigarren faseari ekin zion. Horretarako Leitzako Kontsumituz partaidetza prozesua jarriko zuen martxan. Prozesua urria bukaeran hasi eta azaro erdialdean amaitu zen.

Prozesu hori, ekoizleekin, dendariekin, ostalariekin, askotariko elkarte eta orohar, herritarrekin landu nahi izan zuten. Izan ere, Bertatik Bertara taldearen aburuz, bertako produktuen ekoizpenak eta salmentak ez dizkio soilik onurak baserriar edo ekoizleari ekartzen, herri osoari baizik. Hori dela eta, aurrera begirako langintzan komunitateari garrantzia eman nahi izan dio. Prozesuaren helburua nagusia, bertako elikadura eta produktuak bultzatzeko ekintza plana osatzea izan bada ere, aurrera begira gai hau ukitzen duten sektore eta aktore desberdinak saretu nahi du Bertatik Bertara taldeak ekintza plana aurrera eramateko.

PRODUKTUA	EKOIZLE KOPURUA	
	LEITZA	ARESO
Barazkiak	35	6
Arrautzak	30	3
Axuriak eta ardiak	27	7
Lekaleak	26	5
Fruitu lehorrak	25	2
Oilaskoak	24	5
Haragitarako behiak eta txekorrak	21	6
Fruta	16	1
Haragitarako behorrak	10	5
Ardi esnea	8	5
Konejuak	7	1
Ardi-gazta	7	
Prestatuak	7	
Txerria	4	
Ahuntzak	4	
Behi-esnea	1	
Eztia	1	
Sagardoa	1	

EKOIZLE KOPURUA SALMENTA
PRODUKTU NAGUSIAREN ARABERA



OINARRIAK JARRI DIRA ETA ORAIN LANEAN HASI BEHAR DUGU

Hiru bilera egin ziren guztira Leitza Kontsumituz prozesuan. Lehena urte batez landu zen diagnostikoa aurkeztu eta osatzeko eta gainontzeko biak ekin-tza plana diseinatzeko.

Parte hartze handia izan da bilera guztietan, 35 pertsona batz bestea saio bakoitzean. Bilera hauek dinamizatze-ko Udalak Aztiker enpresa kontratatu zuen.

Esan beharra dago, urte guztian egin den lanketa (inkesta, elkarrizketa...) eta Leitza Kontsumituz prozesua, oraindik lan asko egiteko dagoen arren, sensibilizaziorako bide garrantzitsua izan dela. Bertako elikadura eta ekonomiaz eta lehen sektorearen egoera eta baserriaren lanaren balioa azaleratzeko balio izan du.

Bertako produktuaren kontsumo, ekoizpen eta salmenta bultzatzeko ideia ugari atera ziren Leitza Kontsumituz prozesuaren saio guztietan. Apustu hau

aurrera eramateko korapilo eta arazoak identifikatu eta hauen inguruan hausnartzeko aukera ere egon zen. Baina, lehentasunak adostu eta ordenatzea izan da Leitza Kontsumituz prozesuaren erronkarik handiena.

Horiek horrela, bi urterako plana diseinatu da (2017-2019). Hurrengo urteetarako honako ildoak landuko dituzte Leitza eta Areson bertako kontsumoa bultzatu eta lehen sektorea bizkortzeko:

Epe motzean garrantzitsuenak

- Marka-Zigilu-Produktuen identifikazioa
- Ekoizleen egitura bat sortzea (elkartea, kooperatiba, ...)
- Kontsumo arduratsua eta jasangarria bultzatzea sensibilizazio eta formazio ekimenen bidez
- Salmenta aukerak zabaltzea (puntuak eta azokaren maiztasuna areagotu, ...)

Epe ertainean garrantzitsuak

- Eskolako jantokian bertako produktua kontsumitzea

- Ekoizle berriei erraztasunak ematea (lurra eskuratzeko, formazioa...)
- Bertako ekoizpena baldintzatzen duen legediaren azterketa egitea eta Nafar Gobernuarekin lanketa egitea.

***Prozesuaren memoria osoa
www.leitza.eus atarian eskuratu daiteke.*

Behin oinarriak jarri eta lan-ildoak zehaztu direla Bertatik Bertara lan-taldea berriz ere martxan da eta ildo horiek aurrera eramateko auzolana bultzatuko du beste behin ere. Herritarrei, erosoan lan egin dezakeen taldean aritzeko gonbidapena luzatu die.

Izan ere, taldeak uste du bertako produktuen ekoizpenak eta salmentak ez dizkiola soilik onurak baserriar edo ekoizleari ekartzen, herri osoari baizik. Baserriarrek, nekazari zein abeltzainak dira orain arte elikatu izan gaituztenak, mendiak garbi mantendu dituztenak eta ezinbestekoak izan dira Leitza bezalako arnagune garbi eta berde bat izateko orduan.

Zuhaitzak

mugarratzearen garrantzia

Leitza basoz inguratuta dago, eta basoak eta zuhaitzek berebiziko garrantzia izan dute gure historian. Helen Read Ingalaterrako biologo eta ikertzailea da eta Europako aditu handienetakoa zuhaitz mugarroetan. 2003an Leitzara etorri zen zuhaitz mugarroei buruzko informazioa biltzeko asmoz eta harrituta gelditu zen Leitzan ikusitakoarekin. Helen-en ustez, Euskal Herria Europako leku hoberenetakoa da mugarro zaharrak ikusteko, eta Leitza horren adibide bikaina da.

Zer dira zuhaitz mugarroak? Mugarraketa zuhaitzak ustiatzeko teknika berezia da. Zuhaitzak gazte direla lurretik hiru-lau metrora lepatzen dira, hau da, adaburua mozten zaie, eta adarrak zabal hazten uzten dira. Tarteka adarrak moztu egiten dira, eta horrela hartzen dute zuhaitz horiek beren itxura berezia, enbor lodi eta motzak, adaburu zabal eta enbor-zulo ugarekin.

Mugarraketa modu askotan egin daiteke. Ikazkinek adibidez, zuhaitzak 10-20 urtetik mugarratzen zituzten, txondorretarako adar egokiak lortzeko. Artzainek oraindik haritz, lizar eta urkiak maiz mugarratzen dituzte, aziendei hostoa jaten emateko, adarrekin hesiak egiteko, edo baratzerako arbak lortzeko. Garai batean su-egurra egiteko, untzien sahietasak egiteko, edota habeak lortzeko ere mugarratzen zen.



Helen Read.

Mugarraketak badu, ordea, arazo bat: behin zuhaitz bat mugarratzen hasita, aurrerantzean ere horretan jarraitzea komeni da, gainontzekoan adaburua handiegia egin eta zuhaitza zainiraultzeko arriskua izaten baita.

2007an Leitzan eta Areson pago zahar mordoak mugarratu ziren Ingalaterratik eta beste leku batzutatik etorritako adituekin batera. Ingalaterrako taldeak mugarraketaren azterketa zientifikoa jarri zuen martxan, zuhaitzek nola erantzuten zuten ikusteko. Hasiera batean pagoak soilik mugarratu baziren ere, aurrerago haritzak, urkiak, eta gaztainondo gutxi batzuk ere mugarratu izan dira, guztira 100 zuhaitz. Lagun askoren artean egin dira lan hauek

baina azken urteetan Gabriel Saralegik egin ditu gehienak.

Leitzan orain arte egin diren lan guztiak urtero kontrolatuak izan dira. Miel Mari eta Joxe Migel Elozegi arduratu dira jarraipena egiteaz, eta zuhaitzek izandako erantzunari buruzko datuak jasotzeaz. Lan horri esker, Nafarroan mugarraketari buruz dagoen erregistro zehatzena egitea lortu da.

Aurtengo azaroan mugarraketa jardunaldiak egin dira Leitzan. Ingalaterra, Suedia, Norbegia, Ipar eta Hego Euskal Herria, Katalunia, Madrid, Teruel, Soria, Burgos eta abarretik etorritako 70 lagun elkartu ziren Leitzako jardunaldietan, tartean Helen Read ezaguna. Aditu bakoitzak bere inguruko esperientzia azaldu zuen. Leitzarrek azaldu zuten azken 12 urtetan egindako 100 zuhaitzetatik 8 hil dira, baina gehienek, 73ek, ongi erantzun dute. Kontutan hartu behar da gehien bat pago zaharrak mugarratu direla, eta hauek adar oso handiak dituztenez, zaila dela emaitza onak izatea. Helen Read-ek baieztatu zuen Leitzan egindako lanek emaitza oso onak izan dituztela.

Europako beste leku askotan bezala Leitzan mugarratutako zuhaitz zaharren kontserbazioan lanean ari den talde bat dugu. Balio beza hauen ahaleginak gure zuhaitzak eta bertako mendietako ondarea hobekiago baloratu eta zaintzeko.

LEITZA

Javi Aranbururen begietan

Herritar asko dira argazki zaleak, horietako bat dugu Javi Aranburu. Leitzari buruzko erretrato asko atera izan ditu Javik, eta ilusioz prestatu du argazki sorta bat urtetan bildutako guztien artetik, MARMARIko ale honetan argitaratzeko. Agerian dago argazkilari hauek egiten duten lan bikaina, gure herriko tradizioa eta kultura iruditan jasoz. Hona hemen Leitza, Javi Aranbururen begietan.











II. LEITZULIA, bizikleta gainean mendiaz gozatzeko zeharkaldia

Nahiz eta eguraldiak aurtengo honetan ez zuen gehiegi lagundu, mendi-bizikleta festa izugarria ospatu genuen irailaren 30ean, Leitzan. 300 parte-hartzaile bertaratu ziren 2017ko Leitzulira, bigarren urtez jarraian, dortsal guztiak astebete lehenagotik agortuz.

Leitzulia, mendi bizikleta zeharkaldi ez lehiakorra da. Herria inguratzen duten mendietan zehar doan ibilbideak 42 km eta 1400 metro positiboko malda metatua du.

Aurrera K.E.-ren parte den Mendibil BTT taldeak antolatzen du. Aurreko urteko arrakasta ikusita, aurtengoan

ere, bigarren edizioa burutzeran animatu ziren antolatzaileak. Egia esan, Leitzak duen ingurune menditsu eta ederak horrelako zeharkaldi bat prestatzeko aukera bikaina ematen du. Hori ikusirik, Mendibil BTT taldekoen aspaldiko ametsa zen horrelako proba bat antolatzea. Iaz bete zen ametsa.



300 bizikleta zalek parte hartu dute aurtengo Leitzulian.



42 km-ko ibilbidea osatu behar zuten.



Leitzarrak bizikleta gainean gozatuz, argazkian Joxe Mari, Aitor eta Jokin ageri dira.



Baina bigarren bat ere antolatzea lorpen galanta izan da taldearentzat.

Bi edizioetan hainbat bizikleta-zale dortsalik gabe gelditzea lastima dela onartu arren, antolakuntzak 300 dortsaletan du ezarria muga eta ez du aldatzeko asmorik gainera. Izan ere segurtasuna eta denon gozamina bermatzeko neurri egokia dela baiteritzo.

Aurtengo honetan, eguraldia dela medio (euria, behe lainoa...) aurreko urtean baino lan gehiago izan dutela bai anbulantziek eta baita edonor soros-teko prest egon diren Leitzako suhiltzaileek ere. Parte-hartzaile bat ospi-

talera eraman behar izan zuten kolpe txiki bat hartu zuelako baina, zorionez susto hutsean amaitu zen dena eta ez zen bestelako istripu larriarik egon. Lokatzak zeharkaldia gogortu egiten du eta erorikoak ere gehitu egiten direnez, lana erruz egin behar izan zuten.

Lehenengo 5km-ak kontrolatuak izan ziren. Leitzako plazatik hasi eta alde zaharra zeharkatu ondoren Plazaolara abiatu ziren. Bertan, pixka bat hankak berotu ondoren lehenengo aldapa esanguratsuekin hasi ziren; noski, honetan tropela talde txikitan banatzen hasi zen. Horrela Leitzela-

rea pasa eta Urdolako zelaiak zeharkatu ondoren Petriketako kaxkora iritsi ziren eta handik behera Basakabira, eguneko lehen hornidura puntura iritsiz. Zeharkaldiak, Idiazabal eta Kornietako parajeetatik jarraitu zuen bidearen etengabeko gora-beherak uztartuz Zuparrobiko bidegurutzera iritsi arte, bertan Beruete alderako pista hartu eta mendi bide batetik Uitziko gaineko 2. hornidura puntura, pagadi guneko zoragarri bat zeharkatu ondoren. Handik Guratzerako igoera hasi eta behin kaxkoan, 5km-tako jaitsiera ikusgarriari ekin zioten eta handik helmugara non opari poltsa,



Ibilbidearen hasieran martxa kontrolatuan atera ziren parte-hartzaileak.



Bizikleta zeharkaldia paraje zoragarrietan barrena igaro zen.



90 boluntario aritu ziren lanean egun osoan.



Iñigo, Arkaitz eta Iker herritarrak helmugara iritsitakoan.

jan eta edateko nahikoa eta hainbat jenderen txaloak zain zituzten.

BTT zale guztiak pixkanaka helmugara gerturatuz zihoazen heinean, plazan trialsin ikuskizun bat izan zen herrian geratu zirenentzat. Irundik etorri ziren Iker Rodrighez, Unai eta Julen Gomez lagunek, izugarritzko giroa jarri zuten haien salto, oreka- eta indar-ariketekin bizikleten gainean, baina baita momentu batzuetan mikrofonoarekin erakutsi zuten abileziarekin ere. Ikuskizuna amaitu ondoren, gaztetxoekin tailer moduko bat ere egin zuten trialsinean hasteko lehen pausuak erakutsiz.

Denen partetik, balorazio oso baikorra izan du II. LEITZULI honek ere. Eguraldiak denon, btt-zale zein antolatzaileen, lanak dezente zaildu zituen arren, oso kontentu geratu gara istripu larririk egon ez zelako eta behar izan zen aldiero, erantzun egokia ere lehenbailehen bideratu ahal izan zelako.

Esan behar da bestalde, kirol ekimen hau posible egin duten ia 100 boluntarioren borondate eta lana, zein parte-hartzaileengandik jasotako esker ona azpimarragarriak direla. Azken finean, jendea helmugara lokatzez josia baina aurpegi irribarretsuz, asebeteta, iristen ikusteak zentzua eman

ziola denon aldetik musutruk eginiko esfortzuari.

Ezin ahaztu, hau dena posible izateko jaso dugun laguntza: Leitzako Udala, Aurrera K.E., babesle eta laguntzaile guztiak, herritar mordoa, suhiltzaile boluntarioak... Hauek denak gabe ez litzateke posible izango. ESKERRIK ASKO.

Eta irudiek hitzek baino gehiago esan ohi dutelako, mendi bizikleta zeharkaldi honen argazkiak ikusi nahi dituenarentzat, hona hemen MARMARIrako aukeraturako sorta bat. Gehiago ikusteko gogoz geratu bazarate hona gure blog-erako lotura: <https://leitzulia.blogspot.com/es/>



Bertsolaritza

Leitzako Bertso Eskolatik begiratuta

TXAPELKETA NAGUSIA

Bertsozaleontzat, 4 urtetik behin jokatzen den Euskal Herriko Txapelketa aldiro mugarri bihurtzen da. “Zenbat urte dira Egañak aulkiari kantatu ziola?” edo “Maialenek zeinetan atera zuen doinu eder hura?” Eta erantzuna emandakoan harritu ohi gara, hainbeste urte pasatu izana ez dela posible pentsatuta.

Ohartzerako 4 urte pasatu eta txapelketa berri bat ailegatzen delako. Eta

aurten goa ere indartsu etorri da, asmo, ilusio eta indar berriz bete. Eta Leitzara ere etorri zen final laurdenetan, eta segur aski aurtengo txapelketako orain arteko saiorik biziena utzi zigun.

ITTURRI

Gure artera beste modu batean ere etorri zen, Leitzako Bertso Eskolako kide den Itturrik parte hartzeko aukera izan duelako, final laurdenetan Seguran kantatuta. Eskolan ilusioz eta gogoz hartu

genuen berria, eta txapelketaren bidea oso modu naturalean eta lasaian bizi izan dugu. Prestaketa berezirik ez genuen egin eta saioa nola joan zen ikusita emaitzarekin konforme gelditu ginen. Saioaren bezpera, eguna eta bihar muna patxada eta aldarte ederrean eman genituen, eta hori gauza ederra da. Azkenean 15 bertso kantatzeko mila buruhauste eduki beharra ere... Eta Txapelketan parte hartzea nahikoa ez eta Itturrik sari oso berezia ekarri zuen



1.200 ikusle bildu ziren Leitzako kiroldegian jokatu zen final laudeneko saioan.



Ander Fuentes Itturri.



Itturriren aldeko pankarta.

etxera: txapelketako pankartarik originalarena. Ez da gutxi!

HARIAK

Txapelketaren jostorratzak hari asko lotzen ditu eta bertso eskolarengan ere izan du eragina. Hasteko, lehen aipaturako Leitzako saioan petoa jantzi eta lana egitea tokatu zitzaigun, eta bai pozik egin ere! Sarrerak saldu, atek zaindu, saioaren aurretik Luzek mikroa probatu (hain gustura zegoen bulkaka atera omen zutela oholtzatik!), saioaren ondoren aulki guztiak bildu... Lan asko helburu bakarraren alde: jendeak bertsoarekin gozatu zezan. Eta kiroldegiko “uralitapian” jendeak gozatu zuen. Eta gozatu genuen.

ZAHARRAK BERRI

Txapelketa Nagusiak badu beste alderdi bat, jendeari egiteko gogoia pizten diona. Gurean ere horixe pasatu da ba! Azken urteotan bertso eskolatik kanpo ibili diren batzuei berriz ere bertsoarako harra piztu zaielako. Diego Riaño, Mikel Txotxa eta Aitzol Eizmendi berriz ere ber-

tsoaren gordasola azpira sartu dira, eta horrek taldeari bultzada berri bat eman dio. Mutil handiak diren arren, oraindik bada nahi duenarentzako tokia, e?

BERTSO ESKOLA

Bestela, azken bizpahiru urteetan bertso eskolak arnasaldi bat izan du, gehienbat gazteak oso indartsu heldu direlako. Joanes eta Xabat Illarregi maila ikargarrian ari dira bertsoetan eta izugarritzko gogoia dute bertsoetan egiteko. Eta eskolako gainontzeko kideei ere gogoia berriro zaigu haien arrimoan. Azken urte hau bereziki ona izan da bertso eskolarentzat. Iaz Bardoak ekimena irabazi zuen Leitzako taldeak Etxarri-Aranatzen jokatu zen finalean. Eta gazteenak, berriz, jo eta ke dabilta. Nafarroako Eskolarteko Txapelketan Joanes eta Xabat 1. eta 2. izan ziren, eta Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan biak 6 onenetan sartu ziren, Joanes azpitxapeldun izan zelarik. Joanesek, berriz, Berritxu eta Mariano Izeta Sariketak irabazi zituen, Algortako Abra Sariketan bigarren izan zen eta Zarauzko Li-

zardi Sariketan finalean aritu zen. Urte bikaina, beraz, gure gazteentzat.

SAIOAK

Herriko saioei dagokionez, berriz, Santiburtziotan bi saio ongi errotuak ditugu, bertso eskolakoek Aurrerako atarian egiten duguna eta plazako saioa. Urtean zehar ere baditugu ezinbesteko zita batzuk, adibidez Santa Ageda bezperako koplak. Aurrera begira ere, aurren berriz ere BertsoTruk ekimeneko partaide izanen gara. Iaz Iparraldeko eta Aiaraldeko eskolak izan genituen gonbidatu eta aurtengoan Markinako eskolakoekin aritzea tokatu zaigu. Oraindik zehaztu ez dugun arren, laster izanen duzue BertsoTrukeko saioaren berri.

2018ko hasieran Bardoak ere helduko zaizkigu berriz, orduan ere gutxienez saio bat antolatuko dugu herrian. Ekimen horietaz gain, beste saio batzuk antolatzeko gogoz gaude eta proiektu berriak baditugu esku artean. Beraz, belarriak xabal xabal eduki, edozein taberna zulo, herriko txoko edo bazterretan agertu gaitezke eta!



Sagardo eguna.

ALKE

Leitzako kultur taldea

Leitzako Kultur Taldeak ALKE akronimoa hartu zuen 2007an, IFZ lortzeko egin behar izan zen legeztatze-prozesua eta gero.

Urte oparoak eta emankorrak igaro zituen aurretik Taldeak, herritar eta herrira etorri berriak ziren lagunak elkarrengana bildu eta herriko kultura dinamizatzeko helburu garbiarekin lanean aritu ziren.

1978an, orduan, Leitzan zegoen ikastolaren inguruko guraso-irakasle talde bat hasi ziren gauzak antolatzen. Nonbait, behar handia zegoen orduan, orokorrean kulturalki giro itogarria izan baizen bizi-

tutakoa. Garai haietan hasi ziren egun garrantzi handiko hainbat ospakizun, Kultur Astea, artisauen azoka, etab. Jende ezberdina igaroz joan da taldean, aldika batzuk eta besteak elkartuz, betiere gauzak egiteko gogoz eta ilusioz.

Gogoratzekoak dira, besteak beste, Iparralde Eguna festak, urte batzuk iraun zituen, eta gure iparraldeko senideak erakartzen zituen, herritar askok ere parte hartuz; tresna zaharren erakusketak eta egindako lan bikainak; ehunka kontzertu, otorduak, hitzaldiak, erakusketak, bilkurak eta lan ezberdinak. Lan asko borondatez egindakoak, eta herri-

ko komertzio eta lantegi batzuei esker, ekonomikoki sostengua eman baitute urte luzez.

Esan bezala, ALKE (Altzadi Leitzako Kultur Elkarte) izena hartu genuen aipatutakoan diru-laguntza ofizialetan sartu ahal izateko, horrela erabaki baitzen garai horretan. Hainbat hausnarketaren ondoren, ziklo berri bateri ekiteko gogoz eta ilusioz Talde berri bat abiatu zen, aurrekoak poliki utziz joan baitziren, lan asko egin ondoren.

Erronka batzuk jarri ziren begi bistan, horietako batzuk gorpuztuz eta bidea eginez joan direnak gainera. Kultur



Mikologialdia.

Astea Kultur Aroa bihurtu zen, helburua herriko eragile ezberdinek aportatzea baitzen, eta hara non urteak pasa eta horrela gauzatu den; horrek ematen baitio aberastasuna.

Atekabeltz Elkartearen sorreran parte hartu genuen eta han dugu gure egoitza eta biltokia.

Sagardo Eguna abiatu zen arrakasta handiz, hastapenak zailtasun askorekin izan ziren arren.

Ihauteriak edo "Ioterik" gustuko dugun bezala, lan berri bati ekin genion, eta kostata, baina poliki gorpuzten ari dena, asteartearekin erreferentzia hartuz. Herriko xaharrenek zuten memoria jasotzen saiatu gara, nahiz eta guztiengana ez ailegatu, testigantza garrantzitsuak jaso ditugu.

Argazki zaharrak biltzeari ekin genion mantso mantso, gero Udalak borobildu duen lana.

Leitzakultura.eus martxan jarri genuen, eta sare sozialetan martxan hasi gure berri emateko asmoz.

Santa Ageda kalejirak osasuntsu jarraitzen du urteko egutegian.

Hamar urte badira ere Mikologialdia martxan jarri zela, jende askoren elkarlana erakarriz eta jakintza zabalduz, hori urte batzuk lehenago egindako lanei jarraipena emanez, lehen antolatzen baitzuten xixen erakusketa ikaragarria, gure herrian.

Herriko festak antolatzeko batzordean parte hartuz ere ekarpenak ahal den neurrian egiten ditugu.

Orantzaro pesta garrantzitsuan ekarpenak egin ditugu, eta noski hemen ere beste eragileekin elkarlanean Leitzako eredia gero eta indartsuagoa egotea bideratzen ari da.

Batzuetan asmatu dugu, besteetan ez, zalantzarik gabe, batzuetan harrera ona izan dugu, besteetan mesfidantzak edo gurekiko haserre txikiak ere sortu dira, baina beti borondate onenaz jokatzen izan dugu.



Orantzaroa.

Egun, laguntza handia dugu Udaltik eta herriko komertzio batzuk ere jarraitzen dute laguntza ematen, eskerrak guztioi. Jende berria hasten ari da gurekin lanean beraz, ziklo aldaketa bat dator gure taldean.

Batzuk lekutu, eta beste batzuk lekuko hartzea, naturala den moduan, hori da gure erronka orain, eta ematen du bide onetik goazela.

Baliteke gauzak aldatzen joatea: moduak, antolaketak, herri aurrean azaltzeko itxurak, etab. Hori da herri osasuntsu batean gertatzen dena, naturalki biziak jarraitzen duen bezala: denbora igarotzen den heinean bidea aurreraka jarraitzea, eta modelo berriak abiatzera, lehengoak zokoratu beharrean, zaharrak moldatuz eta eraberrituz.

Mila esker Leitzari



Kalejira koloretsua abiatu aurretik.

Leitza urratsez urrats

Leitzako Amazabal Institutuko ikasleek mugikortasunaren inguruko proiektua garatu eta landu zuten iazko ikasturtean. Egitasmoak izan zuen arrakasta eta oihartzuna ikusirik aurten ere gaiari segida ematea erabaki dute ikasle zein irakasleek, “urratsak emanez” bidea egiten segi nahi dutelako. Bide segurtasuna da proiektuaren ardatz nagusia: herrian dabilzan autoek nola eragiten diguten herritarroi, zein eragozpen eta oztopo izaten dituen oinezkoak kotxeak gaizki aparkatzeagatik, abiaduragatik, espaloi estuengatik, ... Ikasitakoari buruzko erreportaje bat idatzi dute DBHko ikasleek, MARMARIrako. Lan bikaina egin dute. Artikulua irakurtzera animatu nahi zaituztegu, eta bide batez, gaiaren inguruan hausnatzera.

Bizileku batean bizitzera ohitzen garenean zaila egiten zaigu bertako oztopoak antzematea, agian, begi onez ikusteko joera dugulako edo. Leitzarrok,

ordea, inguruko herrietako ikasleen laguntzarekin, begietako estalkia kendu eta behingoz herria eta konkretuki bere mugikortasuna era objektibo batean begiratzeko erabakia hartu genuen. Horrela bada, ikertu eta bide batez ikas-tetxeko gaitegi monotonoetatik ihes egiteko asmoz, gure ingurua erreparatzeari ekin genion kaleak zein errepideak kontuan hartuz.

Arazoa arretaz aztertzeke xedez, kaleetan barrena ibili ginen oinezkoen segurtasuna arriskuan jarri edota irisgarritasuna mugatzen zuten puntu beltzen bila. Kotxeen abiadura gehiegizkoa den guneak, espaloi estuak, oinezkoen ibilbidea moztzen duten oztopoak edota espaloietan aparkatutako kotxeak aurkitu genituen, besteak beste. Sarritan oharkabea igerotzen zaizkigun xehetasunak izan arren, denbora gutxian kezka eta arriskuz inguraturik aurkitu ginen. Bestalde, askotan norberarengan pentsatzera ohituta gaude

eta onuragarria izan zen tarteka gainera-koen oinetan jartzea ere. Kasu honetan, mugikortasun arazoak dituen jendea etorri zitzaigun gogora. Mugikortasun urritu iraunkorreko desgaituak, gurpildun aulkian mugitzeko beharra dutenak, haurren aulkiekin hara eta hona ibili behar duten gurasoak, adineko jendea... Ez gara kontziente egunez egun gainditu behar duten zailtasun kopuruaz. Hori dela eta, konponbide baten beharra sumatu genuen eta kurtso osoan zehar horren inguruan aritu ginen.

Lehenik eta behin, arazo horiek guztiak eta beren soluzio posibleak txosten batean bildu genituen. Ondoren, dokumentu hura udalean aurkeztu genuen, gure ikuspuntua eta etorkizunerako asmoa ere azalduz. Alkatearen aldetik babesa jasotzeak konfiantza eman zigun eta pixkanaka ikasle, guraso eta herritarren artean proiektuaren berri ematen hasi ginen.



Jendeak kontzeptuak nahasteko arriskua egon arren, guk lehen momentutik argi genuen gure helburua zein zen, ez baikaude kotxeen aurka, herri irisgarri baten alde baizik. Hau da, oinezkoen aldeko hiri seguru eta eroso bat nahi dugu, eta horregatik, konponbide materialak alde batera utziz kontzientziazioari eman genion garrantzia. Gu geu, herritarrok, gara herri honen egoeraren erantzule eta gure esku dago aldaketa.

Kontzientziazteko lehen pausua abestia, dantza eta bideoklipa egitea izan zen; arazoaz jabetzea modu negatiboan ikusetik urrun, modu alaian transmititu nahi baikenuen gure helburua. Gero, jaialdia egin genuen, hainbat ekintza eta amaierako kalejiraz osaturiko eguna. Azpimarragarria iruditzen zaigu ekitaldiak edukitako arrakasta, izan ere, adin guztietako herritarrek elkartu ginen bertan, giro onean gure nahia plazaratzeko asmoz. Horrez gain, haur eta gazteen arteko bizikidetzaren harremanak estutzeko zein bestelako baloreak sustatzeko oso baliagarria izan zen.

Kurtso guztian zehar gauzatutako lan eta ekintza haiek guztiek edukitako emaitza onak eragin handia izan zuten guregan. Azken finean, ezerezetik sortzen den proiektu txiki baten handitzea lehen pertsonen bizitzea berezia da, gogobetetze pertsonala suposatzen du. Harro sentitu ginen eta proiektuarekin jarraitzeko gogoia areagotu zitzaigun. Besterik gabe, guk planteatutako lehen helburua lortuzat eman genuen, herritarrek kontzientziaztea.

Hura, ordea, lehen urratsa besterik ez zen izan eta bide etenezin hau jarraitzeko beharra dago. Hain zuzen ere, horrela dio gure leloak: **“Urratsez urrats”**. DBH-ko lehenengo mailako ikasleek eman zioten izena proiektuari eta gure filosofia ezin hobeto transmititzen du. Alde batetik, gure helburuetako bat irudikatzen du, herritarrek oinez ibiltzeko ohitura hartzea. Bestetik, aldiz, bigarren zentzu bati erreparaturik, egi-



Eskolatik plazara kalejijan.



Aiora eta Alaitz abestiaren egileak Karrape irratian.



Eskolako eta Institutuko ikasleak abestia dantzatzen.



Eskolako ttikiak aldarrikapen karteekin.

tasmo honen bide luzea adierazten du. Hau ez baita egun batetik besterako lana, kontzientziazio prozesuak luzeak izan ohi dira, jende askoren konpromisoa eta ardura eskatzen dute, oztopoak aurkitzen dira nonahi, baina pausuz pausu betetzera irits daitezke.

Hori dela eta, **Urratsez Urrats** proiektuak bizirik dihardu eta aurren, beste-

lako hainbat ekintza antolatzeke asmoa darabilgu, hala nola, martxoak 28an burutuko den kalejira herrikoia. Aurreko urtean bizitakoa errepikatu nahi dugu, berriro ere Leitza kolorez bete, herrian zehar dantzari ibili eta kaleetan zehar gure helburua adierazi. Horretarako zure beharra dugu, lagun, anima zaitetz eta hurbildu Leitzara denon ame-

tza bihurtuko den herri eroso horren alde egitera.

Bukatzeko, ez ahaztu ondokoaren zailtasun egoera zeurea izan daitekeela egunen batean eta gureez gain, besteen eskubideengatik ere borrokatzeke beharra dugula. Jarrai dezagun herri irisgarri baten bila, **URRATSEZ URRATS** lortuko dugu eta!

Jose Luis liburu-zainaren erretiroa



Jose Luis Huartek 33 urte egin ditu Leitzako Liburutegian. Lehenbizi Lesakenerako herrian egon zen liburutegia, 1969an ireki zutenetik, gero pasa ziren gaur egun dagoen tokira. Jose Luisek azaroan entregatu zuen liburutegiko giltza, bere ordeztorriko denari emateko.

■ **Bizitzaren ziklo bat itxi duzu, erretiroa hartu berri duzulako, zer moduz zabilta?**

Oso ongi, lanerako orduak bete behar ez izateak ematen duen lasaitasunarekin, nahiz kezka dezente izan, liburutegia itxita baitago!

■ **Asko aldatu al da lan egiteko era urte guzti hauetan?**

Ohiturak eta soporte fisikoak aldatu dira gehien. Orain CDak, DVDk eta horrelakoak ditugu eta internetarako sarbidea, wifi eta erabiltzeko sei ordenagailu. Baina oinarritzko funtzionamendua berdina da, mota guztietarako informazioa eta informazio hori lortzeko baliabideak edozeinentzat eskura jarri eta dohain.

■ **Nolakoa da Leitzako liburutegiko erabiltzaile perfila?**

Haur eta gazteen artean denetarik etortzen da, haur txikiak beren gurasoekin bertan egotera edo liburuak maileguan eramatera, gaztetxoak eskolako lanak egitera eta liburuak hartzera, etab. Irakurtzeko garaian neskak zaletasun handiagoa erakusten dute mutilek baino.

Helduen artean nabarmen emakumezkoek erabilera handiagoa egiten dute.

■ **Aipatu duzun bezala, umeek baidute liburutegira joateko ohitura, txikitatik zaletasuna hartzeak laguntzen al du irakurzaletasuna bultzatzen?**

Bai. Orokorrean txikitatik zaletasuna hartzen dutenak gero ere erabiltzen dute liburutegia. Irakurzaletasuna bultzatzeko berriz oso garrantzitsua da giro hori sumatzea, bai etxean ikusten dutelako irakurtzen dela eta bai eskolan ere giro hori sustatu delako nolabatte.

■ **Alde handia al dago euskarazko eta gaztelarazko maileguen artean? Orain lehen baino euskarazko liburu gehiago eskatzen dela esanzen al zenuke?**

Pentsa orain dela 30 urte oso jende gutxi zegoela euskaraz alfabetatua eta ikasketak ere euskaraz garai horretan hasi zirela. Orain 40-50 urtetik behera gehienak euskaraz irakurtzeko gai dira. Hala ere oraindik gaztelarazko mailegua askoz handiagoa da. Lehen baino gehiago irakurtzen da euskaraz baina aldea oraindik handia da.

■ **Leitzako liburutegian bestelako ekimenak ere antolatu izan dira, zein?**

Ipuin kontalariak, eskolako haurrentzako bisita gidatuak, ipuin eta literatura lehiaketak, liburu aurkezpenak, hitzaldiak, poesia emanaldiak, antzerki saio txikiak, irakurle taldea, liburu era-

kustaldiak, Leitzako Kultur taldearekin batera hainbat ekitaldi...

■ **Irakurle Taldea, esaterako, duela lau urte sortu zen. Hilabeteen behin bildu izan da taldea, eta urtean bitan idazleren bat etorri izan da bere liburuaz mintzatzerako. Ze balorazio egiten duzu irakurle taldeaz?**

Oso ona. 30 liburutik gora irakurri ditugu euskaraz, gustora egon izan gara beti, bai taldean yolasen, bai idazlea gurekin egon denean. Oso giro ona sortu da gure artean eta oso aberasgarria da norberak irakurri duena besteek nola hartu duten ikustea.

■ **Zure ordeztokoari begira, langile euskalduna izaten segitzeko hainbat ahalegin egin da udaletik, euskara mankomunitatetik zein liburutegitik, lortuko dela uste al duzu?**

Badirudi baietz. Momentu honetan dekretu berri bat sinatu du Gobernuak eta Leitzako lanpostuak euskarazko eskakizuna izanen du.

■ **Bukatzeko, Gabonak ere gainean ditugu eta irakurtzeko garai aproposa da, gomendatuko al zeniguke libururen bat?**

Edozein liburu gomendatuko nuke. Liburutegian bertan edo edozein liburu-dendatan aukera ikaragarria da: ipuin, komiki, nobela, askotariko gaiak, ...

Etxean edo liburutegian, bero-bero, liburu batekin ordu pare bat egotea beti da plazer bat! Aprobetxatu!

zer diozu?

eta zuk,

Miren Otermin



- **Karate Modernoko Munduko Txapeldua** izan zinen duela 2 urte. Zer ekarri zizun titulu hark, nola gogoratzen duzu egun hura?
Hamar urte nituela hasi nitzen karatea praktikatzen eta titulu hau urte guzti horietako esfortzua zen saria izan zen. Egun hura oso berezia izan zen, italiarraren aurkako azken borrokaldia gogorra egin zitzaidan itxaro ez nuen garaipena lortu bainuen. Denbora igaro ahala poztasun handiz gogoratzen dut egun berezi hura.
- **Arte martzialekin sergitzen duzu geroztik, baina orain beste modalitate batzuetara egin duzu salto: Kickboxing eta sanda praktikatzen dituzu, eta lehiaketetan ere parte hartzen hasia zara, zer moduz zabilta?**
Modalitate berriak ikasteko beharra sentitzen nuen eta momentuz gustura jarraitzen dut bi horiek praktikatzeko, baina oraindik karatean lortutako maila izatera heltzeko asko ikasi beharra daukat. Aurreko urteko otsailean Madrilen izan ginen Sandako Espainiako txapelketan eta bertan bigarren postua lortu nuen. Dena den, kirol mota hauek momentuz nesken artean oraindik ez dira asko praktikatzen eta konpetitzera oso gutxi joaten gara. Etorikizun hurbilean egoera hau aldatzea espero dut.
- **Entrenamentuetan isiltasuna ala musika?**
Teknika praktikatu edota konbateak egiten ditugunean isiltasuna gogoko dut, kontzentrazioa eskatzen duten uneak baitira. Fisikoa lantzerakoan berriz, musika entzutea gustatzen zait. Horrelakoetan, erritmoa markatzen duten musika komertziala entzutzen dut.
- **Gomendatuko al zeniguke herriko ibilbideren bat?**
Bai, egia esan prestaketa fisikoa ere asko lantzen dugu. Eguraldiak laguntzen badu mendira joatea gustuko dut eta entrenamendu espezifikoak gimnasioan bertan burutzen dut. Ibilbiderik gogokoena Basa-Kabitik Aritzko mendira igo eta haize errotetako buelta dut, eta beraz hura gomendatuko nuke.
- **Leitzan bizi zara, ospakizun ugari antolatzen den herria da, zein da zuretzat urteko ospakizunik edo egunik esanguratsuena?**
Dudarik gabe, Leitzar gehienontzat bezala, San Tiburtzio eguna da niretzat herriko egunik bereziena.

Ibai Azurmendi



- **“Euskadi Fundazioa” taldearen eskutik profesionaletara salto egin berri duzu, honelako albiste baten zain egonen da edozein txirrindulari, ezta?**
Noski. Txikitatik nire ametsa izandu da egunen batean profesionaletara iristea eta azkenean lortu dut. Egunero entrenatu eta zaintzeko motibazio nagusienetako bat izan da amets hori, eta orain lortu dudala ikusita ikaragarritzko lasaitasuna eta poza hartzen dut. Orain nire esku dago aurrera jarraitzea eta uste dut prest nagoela heldu zaizkidan erronkei aurre egiteko.
- **8 urterekin hasi zinen bizikletan, ordu asko pasatzen dituzue entrenatzen eta nahiko baka-rrik gainera. Nola daramazu hori?**
Kirol guztiak daukate bere zailtasuna baina egia da txirrindularitza oso kirol gogorra dela. Pertsonalki oso ongi daramakit kirol honek eskatzen duen esfortzu eta sakrifizio maila. Nire egunerokoan gustatzen zaidana egiteko aukera edukitzeaz oso zorionekoa sentitzen naiz. Gainera, babes handia sentitzen dut nire egunerokoan guraso eta lagunengandik. Haiei esker errazago egiten dira kirol honen aldapa gogorak, eta eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen.
- **Entrenamentuetan isiltasuna ala musika?**
Karreteran entrenatzeak arrisku bat suposatzen du eta nire zentzumen guztiak garbi eta adi edukitzen ahalegintzen naiz. Bestelakoan, denetariko musika gustatzen zait. Lagunak “Katez” taldean aritzen dira eta denbora ateratzen dudanean zuzenean ikustera joaten naiz.
- **Gomendatuko al zeniguke herriko ibilbideren bat?**
Nire ustez Leitzak bere osotasunean dauka xarma. Urtean zehar gure inguruko lekuak ezagutzeko antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzea bultzatuko nituzke herritarrek.
- **Leitzan bizi zara, ospakizun ugari antolatzen den herria da, zein da zuretzat urteko ospakizunik edo egunik esanguratsuena?**
Bi egun etortzen zaizkit burura. Lehenengoa errege bezperako eguna. Uste dut herriak esfortzu handia egiten duela haurren ilusioa azalera ateratzeko eta polita izaten da hori ikustea. Bestetik, abenduaren 31n ospatzen den Kros eguna gustatzen zait. Azkenean, urtea zure inguru eta familikoekin kirola eginez amaitzea bultzatzen da eta uste dut oso ideia positiboa dela gazte guztientzat.